



Ikastetxetik eskaintzen diren eskolaz kanpoko jardueren aurkezpena.

Jarduera hauen ezaugarriak:

- Doakoak eta bolontatezkoak dira
- Ikastetxeko irakasleek egiten dituzte
- **Urritik maiatzera** eskaintzen dira (ordutegia 15:30etik 16:15etara),

HAUR HEZKUNTZA:

Ludoteka

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera. (A eta D eredua)

Maila sentsozialean, sinbolikoan eta bizipen mailan Haur Hezkuntzako ikasleek dituzten beharren arabera, jolas eta esperimentaziorako espazioak sortuko dira.

Txoko ezberdinen bitartez, ikasleek material ezberdinekin esperimentatu eta sormenera bideratutako tailertxoetan parte hartzeko aukera izango dute.

Gutxieneko ikasle kopurua: 6
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20

Arte

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera. (A eta D eredua)

Artelan plastikoak sortzean pazientzia, trebetasuna eta eskuen mugikortasuna landu egiten da. Beraien lan artistiko txikien bidez, kontzeptu berriak ikasten dituzte eta aurretik zituztenak barneratzen laguntzen dute.

Ikasleen ekimena, imaginazioa eta motibazioa sustatuko dira eta burmuinaren azkartasunarekin lanean arituko dira.

Gutxieneko ikasle kopurua: 6
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20



Mahai jolasak

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera. (A eta D eredu)

Betiko mahai jolasak nahiz berriagoak ezagutzeko aukera ematen duen jarduera. Mahai jolasen bidez estrategia, logika eta matematika lantzeaz gain, talde-lana eta irabazi nahiz galtzen ikastea bezalako balioak garatzen dira.

Gutxieneko ikasle kopurua: 6
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20

Zirkuitu eta oreka jolasak

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera. (A eta D eredu)

Ekintza honen bitartez gure gorputza ezagutzeko eta mugimenduak garatzeko aukera izango dugu. Gaintitu beharreko oztopoz beteriko zirkuitua egin eta diseinatzeko aukera egongo da, jolas, sormena eta parte hartzearen bidez.

Gutxieneko ikasle kopurua: 6
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20

Ipuin tailerra

Haur Hezkuntzako 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera. (A eta D eredu)

Jarduera ludikoa da, irakurzaletasuna sustatzeko eta hezkuntza eredu bakoitzeko hizkuntza indartu eta estimulatuko da. Ipuinen bitartez, ahozko hizkuntza lantzeaz eta hiztegia aberasteaz gain, emozioak, pentsamenduak, irudimena, sormena etab. lantzen dira.

Gutxieneko ikasle kopurua: 6
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20



LEHEN HEZKUNTZA:

Eskulanak

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bi ereduetan (**A eta D eredua**) eta **Lehen Hezkuntzako 3.mailako A ereduan**.

Eskulanean bitartez pazientzia, trebetasuna eta eskuen mugikortasuna landu egiten da. Beraien lan artistiko txikien bidez, kontzeptu berriak ikasten dituzte eta aurretik zituztenak barneratzen laguntzen dute.

Ikasleen ekimena, imaginazioa eta motibazioa sustatuko dira eta burmuinaren azkartasunarekin lanean arituko gara.

Ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 8-25

Antzerkia

Lehen Hezkuntzako D ereduko eta A ereduko ikas maila guztietako ikasleei zuzendutako jarduera da.

Haurraren espresio hastapena landuko da aspektu guztietan, ahozko nahiz gorputz adierazpena landuz. Honela, eredu bakoitzeko hizkuntza ere indartuko da, hiztegia aberastuz, adierazpen berriak barneratuz...

Ikusleentzako antzezlanak prestatzeaz gain, antzerkian ezinbesteko tresna den inprobisazioarekin jolas egingo dugu. Kanpotik ekarritako nahiz norberak sortutako testuekin lan egingo dugu. Banaka, bikoteka eta taldean ere lan egingo dugu.

Gutxienerako ikasle kopurua: 8
Gehienerako ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25



Mahai jolasak

Lehen Hezkuntzako D ereduko 1. eta 2. mailako eta A ereduko 1., 2. eta 3. mailako ikasleei zuzendutako jarduera da.

Betiko mahai jolasak nahiz berriagoak ezagutzeko aukera ematen duen jarduera. Mahai jolasen bidez estrategia, logika eta matematika lantzeaz gain, talde-lana eta irabazi nahiz galtzen ikastea bezalako balioak garatzen dira.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25

Psikomotrizitatea

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bi ereduetan (**A eta D eredua**) eta **Lehen Hezkuntzako 3. mailako A ereduan**.

Ikastetxean koltxonetak, horma-barrak, gomaespumazko blokeak eta abarrekin hornitutako gela bat daukagu, ohiko Psikomotrizitate saioetarako erabiltzen duguna. Haur Hezkuntzako irakasleek garatutako proiektu honek ikasleei espazioarekiko, objektuekiko eta beste haurrekiko harremanak emozioen bitartez garatzeko aukera ematen die, adinari eta garapen mailari egokitutako marko baten barruan.

Ikastetxeak jarduera hau proposatzen du, espazio honetako materialek gorputzaren bizipenentarako eta adierazpenerako eskaintzen dituzten aukerak probestuz, adin-tarte honetan ariketa motorraren garapena oso garrantzitsua baita.

Gutxieneko ikasle kopurua: 7
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 20



Euskal dantzak

Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bi ereduetan (**A eta D eredia**) eta **Lehen Hezkuntzako 3.mailako A eredian**. Jarduera euskaraz garatuko da.

Munduan ez dago dantzarik egiten ez duen herririk. Dantza gizakiok gorputzaren bidez komunikatzeko eta adierazteko dugun beharrei erantzuten diogu.

Dantza kultura gehienen debozio handia duen jarduera da. Izan ere, guztiaren gainetik, dantza gozamina da. Dantzatzekeo plazera eta musika entzuten dugun bezala, dantzaz ere gozaten dugu.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25

Jolas eta kantak ingelesez

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleei zuzendutako jarduera bi ereduetan (**A eta D eredia**)

Ingeleseko jolas eta kantak aurkeztuko dira; non hizkuntza bera garatu eta errefortzatuko den. Ahozko hizkuntza garatu eta hiztegia aberastuko da.

Gainera, honek berdinen arteko harremanak sustatu eta trebezia sozial nahiz kognitiboen garapena bultzatu dezakeen.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25

Patio jolasak

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailakoentzat D eredian.

Patioan, lagunekin, giro lasai eta eroso batean jolas desberdinekin gozatu dugu. Adibidez: zapia, harri-orri-ar, ezkutaketak, alturitak...baita beste hainbat jolas gehiago ere

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25



Zinema tailerra

Lehen Hezkuntzako D ereduko 3. , 4., 5. eta 6. mailako ikasleei eta A ereduko 4., 5. eta 6.mailako ikasleei zuzendutako jarduera.

Gai ezberdinak lantzen dituzten film laburrak ikustea, baloreak eta pertsonen arteko harremanak jorratzen dituztenei lehentasuna emanez, eta ikusitakoari buruzko hausnarketa egitea, ikasleen inteligentzia emozionala garatzeko.

Jarduerari amaiera solasaldi baten bidez emango zaio, parte hartzaile bakoitzak bere ideia eta hausnarketak adierazteko aukera izango duelarik.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25

Ikas teknikak / Hezkuntza errefortzua

Lehen Hezkuntzako ikastetxeko ikasleei eskola arrakastaren adierazleak hobetzearen beharrari erantzuten dion eskolaz kanpoko ekintza da.

Ekintza, zailtasunak dituzten ikasleen aukerak hobetzera zuzenduta dago, lanaren edo eskolaz kanpoko laguntza antolatuaren bidez. Aldi berean, oinarrizko trebetasunak, irakurketa ohiturak, lanaren ohiko erritmoa eta ikasgai desberdinetako eskakizunei erantzunez.

Lehen Hezkuntzako 3.zikloko (A eta D ereduko) eta A ereduko 4. mailako ikasleek parte hartuko dute. Izen ematea librea da, baina ikasturtean zehar tutoreek eta irakasle taldeek edozein ikasle ekintza honetan parte hartu dezaten familiei proposatu diezaiekete, zuzendaritza taldearekin eta orientatzailearekin elkarlanean.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25



Informatika

Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleei zuzendutako proposamena. **(D eta A ereduan).**

Ikasle askok ez dakite ordenagailuan teklak behar bezala erabiliz idazten. Mekanografiatzen ikastea jarduera erraza izateaz gain gaitasun ezberdinak garatzeko oso erabilgarria ere bada.

Ikasleek mekanografia ikasteko programa eta jolas ezberdinak erabili ahal izango dituzte.

Jarduera honekin ikasleei Teknologia Berrietara hurbiltzeko aukera eman nahi diegu, hezkuntzara bideratutako erabilpena oinarritzat hartuz: ikerkuntza, hezkuntzarako aplikazioen erabilpena, Departamentuak sare publikoko ikasle guztiei eskaintzen dizkien aplikazioak ezagutu eta egunerokoan erabiltzea...

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25

Kirol anitzak

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei **(D ereduan)** eta **LHko 4., 5., eta 6.mailako** ikasleei zuzendutako proposamena. **(A ereduan)**

Jarduera honek txikitatik sustatu nahi du kirola bizitza osasuntsu baterako, eta, horretarako, gure ustez, beharrezkoa da mugimen-trebetasun egokiak eskuratzen lagunduko duten kirol-aukera ugari ezagutzea.

Jolasa eta dibertsioa izango dira jardueraren hari gidariak. Horri esker, kirola egin ahal izango da eta parte-hartzaileen artean kirolaren balio positiboak sustatu ahal izango dira, haien guztien bizitzarako baliagarriak baitira. Lehiaketak bigarren mailako lekua hartuko du, eta ikasteko estrategia gisa soilik erabiliko da, oinarritzko trebetasunak eta ezagutzak behar bezala eskuratzea eragotzi gabe.

Gutxieneko ikasle kopurua: 8
Gehieneko ikasle kopurua irakasle bakoitzeko: 25